

# EUSKAL ERRIA

PAIS BASC <sup>(1)</sup>

Salvador Espriu

## *Illargia*

Arri batekin  
itzaltzen dut sarkaldeko azken  
argia ur barnean.

Kolpeak austen zuen  
arrasti guztia, kristalaren  
presondegia meeak.

Bertatik irtetzen ziren  
argitasunezko eskuak. Artotzatik  
jetxiaz, arbolarik arbola,  
ixilla entzunez  
gaillur aiena, gorririk,  
poliki-poliki zabaldua,  
begiratzen dudana gaua.

---

(1) Lan au "Revista de Occidente" k argitaratua da leen idatzia, egillearen izkuntza katalanean, ondorean izlauz, aldizkarikoen gaztel itzulpenarekin. Ikusi: "Revista de Occidente", n.º 42, septiembre, 1966; 265/268 orrialdeetan.

"Illargi" eta "Aizea" izenburuak S. Espriu egilleak berak euskeraz jarriak dira katalanezko leen lan ortan.

*Karlos Ospetsuaren illobia (2)*

Iruña-ra etorri naiz,  
euskeraz mintzatzen ez dut entzuten,  
zeren Karlos ikustea nai nuen  
bere arzurizko obian.

Bere alboan, erregiña  
lo delarik berakin batean  
eriotze jabalez.

Gizon gaizto bategandik sortarazia,  
printzipe ospetsua izan zen bera.  
Baiñan, gaur, zer gelditzen zaigu  
bere egintza ta itzetaryik?  
illobi au soillik.

Bere inguruan,  
aoku ospetsuak  
betirako negarrez.  
Iñoiz, baitere lagunduz,  
eguzki izpia,  
bear bada goialdeko  
leioetatik jetxia.

Ibaia zear, arbolak  
lerden aziaz  
uraren arrasean  
esanez aizeari, ezerezari,  
izen zaar suntsituak.

---

(2) Onek, jatorrizko izenburua, katalanez, *La tomba de Carles el Noble du*.

## *Aizea*

Sentitzen al duzu aizea  
nola eltzen den sagastitik  
leio ondora?  
Sartu nai du.

Zaldia irrintzika  
gauaren barnean.  
Zakurrak zaunkaz  
ibiltari bitxiaren itzalean.

Aizeak begiratu digu  
bere begi ain ustuekin  
ta orain ate joka da:  
sartu nai du.

Tristerik, oso geldi  
sutondoan, igaroz  
illen barauen  
ordu luze auek.

Aizea bustita eltzen zen  
ibaiz ibiltzeaz.  
Eztituko balitz, gogotik utziko  
genioke gurekin ixeritzen  
su-bazterrean.

JUAN SAN MARTIN'ek euskeratua.